

1216 – BERDINTASUNAREN IKUSPEGIA ZABALTZEN

**Assumpta Ayerdi Olaizola eta Maider Sagredo Escudero
– SORGINLORE GIZARTE ELKARTEA.**

Ikastaro hau, berdintasunaren ikuspegia zabaltzeko, euskaltegiko materialgile eta irakasleei zuzenduko zaie.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburu orokorra

Berdintasunaren ikuspegi orokorra aurkeztea (testuingurua, marko legala...) eta didaktika-arloan zentratzea, materialgintza eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan.

Helburu operatiboak

- Testuingurua ezagutzea.
- Kontuan hartu behar diren aldagaiak barneratzea.
- Materialak sortzeko orduan erabili beharreko estrategiak lantzea.
- Klasean izan daitezkeen tirabirak modu egokian kudeatzeko baliabideak lantzea.

Edukiak

Testuingurua:

- Marko legala.
- berdintasuna, ekitatea eta feminismoak.
- Interseksionalitatea eta ez-bitartasuna.

Materialgintza:

- Rolak, estereotipoak eta iruditeria berriak eraikitzea.
- Komunikazio feminista: ahozkoa, idatzizkoa eta irudizkoa.
- Erreferenteak, informazio iturriak, erreferentziak...

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak:

- Irakasleak eraldaketa-erreferente gisa.
- Indarkeria matxisten prebentzioa.
- Espazio eta harreman osasuntsuak sortzen.

Metodologia

- Alderdi teorikoak eta praktikoak uztartzea.
- Pedagogia feministak.
- Partaidetza esanguratsua eta ekitatiboa.
- Gogoeta egitea eta ekitea.
- Esperientziatik ikastea.
- Komunikazio dialogikoa eta proaktiboa.